



**Elkarrekin
bizi eta
mintza**



Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

83

TSINPART

ALDIZKARIA / 2025eko ekaina / www.haurtzaroikastola.eus


AURKIBIDEA

Agurra	_03
Gai Nagusia	_04
Berrikuntzak	_08
Langileak	_14
Senideak	_16
Urmendi	_18
Hatzak Bete Lan	_22
Argazki-albuma: lhoteak, Inauteriak, Euskaraldia, Ikastola Eguna	_38
Taldea	_40
Laburrak	_44
Eskolaz Kanpokoak	_48
Oiartzo	_50

TXINPART

Hautzaro Ikastola
Elorrondo z/g - 20180 Oiartzun
T.: 943 49 16 59
hautzaro@ikastola.eus
LG: SS-129 / 2001

DISEINUA ETA MAKETAZIOA
DIXIDU Diseinu Grafikoa





AGURRA

Kaixo, irakurle!

Aurtengoa ere joan zaigu, bada. 24-25 ikasturteak bereak eta bi egin ditu!

83. zenbakia borobila ez bada ere, edukiz lan borobila da, perfektua ez bada ere. Barruko orritan, bigarren lauhilekoan egindakoa oroitzeko, gozatzeko eta ezagutzeko aukera izango duzu. Murgildu zaitez barruan!

Borobilak, zirkuluak, hasierarik eta amaierarik ez du erakusten. Hori bera da Txinpart, hasierarik eta amaierarik gabekoa, aldi oro-aldi oro egindakoa erakusten duena, batetik bestera egindakoa lotzen duena.

Alabaina, ale honetan, lanketa berri baten hasiera bereziki gogoratu nahi dugu, gure egunerokoan oso presente izanagatik ere, indartu nahi izan duguna: berdintasunaren eta parekidetasunaren balioa, eta, lehenengoz, arrazakeria eta xenofobiaren aurkako eguna gure agendan kokatu.

Era berean, borobilaren amaierarik bereizten ez bada ere, ikasturte honetan, ziklo bati bukaera eman diote Maritxuk, Joxek eta DBH 4ko ikasleek. Maritxuk, jantokiko arduradunak, agur esan zigun abenduan, 40 urteko lanaldia eta gero. Joxek, sukaldariak, zuek oporrak hartzearekin batera zintzilik jarriko du mantala.

Eta honenbestez, guk ere uda ona izango duzuen esperantzan, agurtzen zaituztegu. Laster arte!

Elkarrekin bizi eta mintza





Horren bitartez lurraldeak euskaraz lotzeko zubiak egitera gonbidatzen zitzairen ikastolei.

2015ean, Udalbiltzak Haurtzaro Ikastolari, Zazpiak Bat Harreman Sarearen bitartez Oarsoaldeko Udalek eta Zuberoako ikastolek martxan zuten proiektuan parte hartzeko gonbita egin zion.

Zazpiak Bat Harreman Sarea, Zuberoarekin harreman iraunkorra garatzeko helburuarekin sortu zen, gurean gauzatzen den esperientzia adibide gisa hartu eta bailarako beste ikastolak eta Iparraldekoak saretuz joateko asmoarekin.

2014ko urriaren 18an ELKARREKILAN EUSKAL HERRIA hitzarmena adostu eta lankidetzaren harremana garatzeko konpromisoa hartu zen, eta 2015eko maiatzan sinatu. Horren bitartez lurraldeak euskaraz lotzeko zubiak egitera gonbidatzen zitzairen ikastolei. ELKARREKILAN EUSKAL HERRIA lelopean, administrazio desberdinen pean dauden ikastolen arteko kohesioa, barne ezagutza eta elkartasuna bultzatu nahi ziren ikasle, irakasle eta gurasoen arteko elkartrukeak sustatuz, giza harremanak indartuz, euskara eta euskalkien alde eginez, eta kirola, teknologia berriak, elikadura burujabetza edo beste edozein gai landuz.

Guzti horretarako hainbat ekintza burutuko ziren:

- Ikasleen arteko trukaketak. Hasiera batean gutun bitartez eta ondoren, topaketak burutuz.
- Hiru ikastoletako irakasleen arteko trukaketak.
- Hiru ikastoletako gurasoen arteko trukaketak. Haur eta gurasoen arteko egun bat martxan jarritz (Zazpiak Bat eguna).
- Hiru ikastolen artean, bi lurraldeetako geografia, historia, kultura, produktu lokalak... ezagutaraztea.

Ikastolari, hezkuntza aldetik zegokiguna, herri handiago batean euskaraz bizi zitekeela ikusaraztea zen, han kolegioetan ikasten jarraitzeko zailtasun handiak dituztelako.

Beraz, 2015ean Haurtzaro Ikastolaren, Sohütako Ikastolaren eta Eperra Ikastolaren arteko ikastolen arteko trukeen antolaketari ekin zitzaion eta 2017an gauzatzen hasi zen LHko 2. zikloko ikasleekin eta familiekin.

01. GAI NAGUSIA

Bien bitartean, eta Ikastolen Elkartek DBH 1. mailarako sortutako Euskara arloko ikasmaterialak aprobetxatuz, elkarbizitzeko eta elkarrekin euskaraz mintzatzeko egitasmoaren lanketan murgildu ginen. Beste urrats bat gehiago egiteko prest geunden, oraingoan Nafarroa Beherearekin. Testuinguru horretan, hasi ziren Seaskarekin proiektuaren prestakuntzarako lehen harremanak eta jarraian, lehen trukea ikasleekin: nork bere deskribapena egin, elkarri gutunak idatzi, geletan partekatu... Geroztik, DBH 1eko ikasleak Larzabalako Manex Erdozaintzi kolegioko ikasleekin harremantzen dira, hangoak hemen eta hemengoak han, mugarik ez dagoela bizi araziz.

Elkartrukeak ez dira beti garai berean egin eta ez dute beti ibilbide bakarra izan. Esaterako, 2020ko ihotetean, Sohütako LHko ikasleak gure artean izan genituen. Zakuak Oiartzungo ikastolako gurasoen laguntzarekin prestatu genituen eta gurekin batera, gure herriko festa handian txertatu; sorginen txapelak egiten lagundu genien eta ihotte asteburuan familiak gurekin batera egon ziren. Baina 2020ko martxoan iritsitako pandemiak hurrengo urteetako LHko eta DBHko elkartrukeak zapuztu zituen.

Urte batzuek eta gero, berriz ere martxan jarri dugu DBHko Larzabalarekin harremana eta aurten, abenduaren 3an, Basaburuko ikastolakoak harremanetan jarri ziren gurekin geurean hiru egun pasa nahi zituztela esanez. Aupa! Galdutakoa berreskuratzeko bidea egin da, beraz!





Argi dago
kultur
trukaketak
gu aberasten
gaituela eta
herria ere
aberastu
egiten duela.

Otsailean, 7 eta 11 urte arteko 19 neska-mutil izan genituen gurekin. Goizetan irteerak egiten zituzten, zientzia museora, Tabakalerara... eta arratsaldean, gure Gotti-betti jolastokiaz gozatu zuten. Elkar ulertzeko nahiko komeria izan badute ere, zoragarria izan zen elkarrekin jolastu ahal izateko asmoz bi euskalkitan egiten zituzten komunikazio saiakerak entzutea. Ostiralean egun guztia elkarrekin pasa zuten, goizean geletan, arratsaldean sorginen etorreran, eta nola ez, BURRUNBAN!

Aurten ere etorri dira familiak ihoteak gurekin pasatzera, eta ospatzeaz gainera, gozatu egin dugu elkarrekin. Intxixuen etorrera, afaria, kuestazioa, bazkaria... eta nola ez, tertuliarako aukera ere izan dugu, hiru ikastolen arteko harremana uztartzeko aukera, gurasoen antolaketaz hitz egiteko aukera, elkarrengandik ikasteko aukera...

Zuberoara bixitan joan eta bertako guraso batek, bere alabak ikastolarako egin behar zuen aurkezpena Intxixuei buruz egin zuela esaten dizunean, edo beste batek bere semeak goizero ikastolarako bidean "Intxixu dantza intzazu" abestia entzun behar duela esaten dizunean zoragarria da, eta noski, baita zureak Ho Pitxu ho! esaten duenean ere!

Martxoan, aldiz, DBHko Manex Erdozaintzi ikastolako txanda izan da. Gure DBH lehen mailako familiek etxean hartu dituzte gaztetxoak eta inguruneak eskaintzen dituenak ezagutzeko eta gozatzeko aukera izan dute. Elkarrekin abestu dute eta hamaika nerabe-istorio partekatu dituzte, zein bere euskara ederrenean. Ekainean, Haurtzaroko gaztetxoak izango dira Baxenafarroan galduko direnak beste hiru egunetan.

Argi dago kultur trukaketak gu aberasten gaituela eta herria ere aberastu egiten duela. Izan gaitzen ZAZPIAK BAT, mugarik gabe!

Elkarri- keta

Maddi Uriarte Lakuntza eta
Agurtzane Etxeberria Txurio



“Ikastolak apustu handia egin izan du urte luze hauetan guztietan Psikomotrizitatea ikastolako egunerokotasunean txertatzeko eta bertan egiten den lanari jarraipena emateko gogoz sortu da proiektu berri hau. Haurrei eta familiei aukerak ireki eta zabaltu nahi zaizkie garapen osasuntsua bultzatzeko bidean”.

ZER DA “PSIKOMOTRIZITATEA”?

Ez da gauza erraza psikomotrizitatea bi hitzetan definitzea. Psikomotrizitatea ertz askotatik definitu liteke eta esan genezake praktika honen helburu nagusia haurrari bere identitatearen eraikuntzan aurrera egiten laguntzea dela. Psikomotrizitate saio batean, espazio jakin batera doaz haurrak, espazio horretan material jakin bat dago eta denbora jakin bat egituratzen da hainbat erritualetan. Psikomotrizitateak, haurrari bere osotasunean transformatzeko aukera eskaintzen dio; bere emozioak, alderdi fisikoa, pentsamenduak eta harremanak eraldatzeko aukera, hain zuzen ere. Azpimarratu nahi genuke, marko honetan ezinbestekoa dela helduaren bide-laguntza, helduaren disponibiltatea edo hurbiltasuna, begirada, behaketa, entzute aktiboa, eta batik bat, aurretik aipatutako alderdi guztien baturak suposatzen duen haurraren errespetua.

02. BERRIKUNTZAK





Haurra eraldatzeko lehenengo pausoa, haurraren onarpenetik abiatzen da: “onartzen zaitut une honetan zauden bezala”.

“ERRESPETUA” DIOZUENEAN, ZER ESAN NAHI DUZUE?

Psikomotrizitate saioetan, haurrak une horretan dauden bezala jasotzen eta onartzen ditugu. Etengabeko mugimendu geldiezinean dagoen haur bat, bere mugimendutik abiatuta onartuko dugu. Lagunekiko harremanetan bulkadak dituen haurra, bere ezinegonetik abiatuta onartuko dugu. Horrek ez du esan nahi kideak erasotzen utziko diogunik. Errotuta duen joera beste bide batetik askatzen lagunduko diogu. **Haurra eraldatzeko lehenengo pausoa, haurraren onarpenetik abiatzen da:** “onartzen zaitut une honetan zauden bezala”. Horrela, haurra ulertua sentituko da eta sentipen horretatik hasiko dira bere defentsa mekanismoak leuntzen. Haurrak sentitzen badu guk bere hainbat joera edota jokamolde “desagerrarazi” nahi ditugula, are eta sendotasun handiagoarekin helduko die joera horiei.

HAURRA ONARTU ETA GERO, ZER?

Haurraren behaketa egingo dugu: Zer behatuko dugu? Zer egiten duen, egiten duen horretan errepikapenak ote dauden; bere gorputza eta gorputz horren adierazteko modu eta bide ezberdinak zeintzuk diren; espazioarekin, materialekin, denborarekin, kideekin, helduarekin eta bere buruarekin erlazionatzeko duen moldea zein den... Azterketa horretatik haurra ulertzen eta hipotesi ezberdinak formulatzen saiatuko gara. Ondorengo pausoa esku-hartze ibilbide bat definitzea eta etengabe birdefinitzea izango da. Ez gara sintomei begira jartzen; begirada zabal bat eskaintzen diogu haurrari, haurra bere osotasunean kontuan hartuz. Haur bakoitza bakar eta errepikaezina da, eta bere ingurunearekin hartu-emanean egoteko modu jakin bat du. **Haur bakoitzak bere bizi-historia du eta bizi izan duen ibilbide horren baitan eratu du bere arkitektura psikikoa.**

Oso barneratua dugu norbanakoaren bizi-historia amak erditzen duenean hasten dela. Interesgarria iruditzen zaigu baieztapen hori zalantzan jartzea, badagoelako haurra jaio aurretik prozesu esanguratsu bat, hain zuzen ere, guraso horiek haurra euren pentsamenduetan irudikatzen hasten diren unea. Gure ustez, haurra, lehenik, gurasoen iruditerian eratzen da. Gurasook haurrekiko ditugun espektatibek eta proiektzioek asko baldintzatu dezakete haurraren bizi-historia eta, horrenbestez, identitatea. **Haurarentzat osasuntsuena gurasook eurekiko ditugun espektatibak ahalik eta gehien askatzen saiatzea litzatekeela iruditzen zaigu, haurrek euren bide propioa eraiki ahal izateko.**

MAIZ ENTZUTEN DA GURASOEN AHOTAN “NI BEZALAKOA DA”

Bai, haurraren sintomei buruz hitz egiten hasten garenean, hau da, haurraren bizitza baldintzatu dezaketen “gehiegizko” joerei buruz hitz egiten hasten garenean adibidez, maiz entzuten da gurasoen aldetik “ni ere horrelakoa nintzen”. Galdera da: eta zure haurrak zure molde bera errepikatzea nahi duzu? Edo aukera eskaini nahi diozu bizitzarekin beste modu bateko harremana eratzeke? Ezinbestekoa deritzogu, ni “guraso” bezala nor naizen kontziente izatea eta gure haurra gizaki bakar eta errepikaezin gisa nor den bereiztea. Bereizketa honetatik soilik eskainiko diogu aukera haurrari gugandik ezberdina eta bereizia den norbanakoa izateko.

BEREIZTEA DIOZUENEAN, ZER ESAN NAHI DUZUE?

Guraso bezala, haurrari oso itsatsita egonez gero eta haurrak autonomoki egin dezakeen eta adierazi dezakeen horretan aurreratuz gero, haurra helduarekiko eta kideekiko menpekoa bihurtu liteke. Adibide simple bat jarritz: 3 urtetatik haurra gai da bere berokia ikastolako zintzilikarioan zintzilikatzeko; baina heldua aurreratu egiten da eta egunero uzten du haurraren berokia zintzilikarioan.

02. BERRIKUNTZAK

Haurra inkontzienteki jasotzen ari den mezua honakoa da: ez zara gai zure berokia ikastolako zintzilikarioan uzteko eta heldua behar duzu horretarako. Mezu horretan haratago joaz, "heldurik gabe ezin duzu" litzateke haurrak jasotzen duen zeharkako mezua. Iruditzen zaigu haurrarentzat osasuntsuena litzatekeela helduaren presentziarekin -"presentzia" zentzu zabalenean ulertua eta adinak eskatzen duen distantziaren baitakoa izanik- haurrari "egiten uztea" eta egiten duen horretan baita "nahasten uztea" ere. Haratago joaz, "nahaste" horretatik bere irtenbide propioak bilatzen uztea. Haurrak irtenbideak bilatzeko laguntza eskatuz gero -egoeraren baitan- galdetu liteke "zure ustez zeintzuk izan litezke egoera honen irtenbide ezberdinak?". Horrela, haurrak helduaren begirada indartzailea sentituko du "helduak uste du ni gai naizela irtenbideak bilatu eta aurkitzeko". Honenbestez, **haurra bere ekintzaren subjektu eta bere zailtasunen subjektu bilakatuko da gurasoagandik bereizten den identitate batekin**. Gurasoak emozionalki, mentalki eta fisikoki haurragandik "urrunegi" kokatuz gero, haurraren abandonu sentsazioak sor litezke. "Gertuegi" kokatuz gero berriz, helduak ukatu egin diezaioke haurrari identitate propioa duen subjektu izateko aukera. Gurasoak bi mutur hauetakoren batean kokatuz gero, haurrak zailtasun nabarmenak izan ditzake bere garapenean.

EGITEN UTZI BAI. BAINA NAHI DUEN GUZTIA EGIN ETA ERABAKI BEHAR DU HAURRAK?

Ez, gure ustetan haurrak heldu bat behar du ondoan "egiten uzten diona" marko egituratu eta ziur baten barruan. Marko egituratu eta ziurra helduak eraikitzen du. Maiz entzun eta irakurri dugu hainbat psikomotrizitate prestakuntzatan, **haurrek, erabakiak hartzen dituzten helduak behar dituztela euren ondoan; haurrarentzat osasuntsuena zer den erabakitzen dakiten helduak behar dituztela**: "nik heldu bezala pentsatuko dut zer utziko dizudan erabakitzen eta zer ez, zure ongizatea zaintzeko". Adibidez: "errepidea nirekin batera zeharkatuko duzu"; "gaur erosketak egitera goaz eta ezin dugu parkean geratu, atzo ni egokitu nintzen zuk nahi zenuena eginez eta parkean geratu ginen. Gaur zuri dagokizu egokitzea nik behar dudana horretara". **Haurrei gero eta erabaki eskumen gehiago ari zaie eskaintzen, gero eta galdera gehiago egiten zaizkie, eta haurren egitura psikikoa ez dago prest euren esku uzten diren zenbait erabaki hartzeko. Horrek ziurgabetasun bizipen handiak sor ditzake haurraren eta, era berean, egozentrismoan kokatzen ditu. Egozentrismoan dauden haurrek zailtasunak izan ohi dituzte gainerako haurrekin erlazionatzeko eta egoera ezberdinetara egokitzeko.**





ARAUEN EDO MUGEN EZARPENEAN, ZER DA GARRANTZITSUA?

Arauak edo mugak zurrunegiak direnean edota malguegiak direnean arauen edo mugen atzean dagoen zentzua galdu egin liteke. Garrantzitsua iruditzen zaigu ikustea ea haurrari jarri diogun muga horrek zentzu bat ote duen testuinguru eta momentu jakin horretan. Helduarentzat muga hori zentzuduna izan bada, haurraren muga horrek haserrea sortu arren, haserre-emozioa baretzen denean, haurra gai izango da ezarri zaion muga horren zentzua ulertzeko. Haurrak sentitzen duenean heldua gai dela zentzuzko mugak jartzeko eta mantentzeko, lasaitasuna eta ziurtasuna sentituko du, “badago nire osasun mentala, emozionala eta fisikoa zaintzen dakien heldu bat nire ondoan”. Helduak ere, noski, nahastu egiten gara mugak jartzeko garaian edota beste hainbat unetan, ezin beti asmatu! Oso aberatsa da haurrentzat helduak ere nahasten garela bizitzea. Gainera, haurrari adierazten badiogu “nahastu egin naiz...”, bizituko du badagoela heldu bat nahasten denean onartzeko beldurrik ez duena eta nahastu dela aitortzeko gai dena. Horrek haurrari lagunduko dio bere nahasmenak naturaltasunez bizitzen eta onartzen. Psikomotrizitate saioetan jartzen den muga honakoa da: “ezin da minik eman eta ezin da minik hartu”. Mina emateko joera nabarmena duen haurrari laguntza eskainiko diogu berak behar duen horren baitan, zeharkako estrategiak erabiliz.

PSIKOMOTRIZITATE PROIEKTU BAT JARRI DA MARTXAN IKASTOLAN ESKOLA-ORDUZ KANPO...

Bai, aukERAN izena jarri zaio proiektuari. Ikasturte honetan 25 ikasle eta familia dira proiektuaren parte. Ikastolak apustu handia egin izan du urte luze hauetan guztietan Psikomotrizitatea ikastolako egunerokotasunean txertatzeko eta bertan egiten den lanari jarraipena emateko gogoz sortu da proiektu berri hau. Haurrei eta familiei aukerak ireki eta zabaldu nahi zaizkie garapen osasuntsua bultzatzeko bidean. Zenbat eta aukera gehiago zabaldu, orduan eta bultzada handiagoa emango diogu haurren osasun integralari.

ZEIN DIRA PROIEKTUAREN NONDIK NORAKOAK?

Euren haurren garapen osasuntsuari bultzada eman nahi dieten familia guztiei dago zuzendua. Prebentzio mailako proiektua da eta 2 urtetik 10 urte bitarteko haurrei zabaldu diegu eskaintza, hau da, HH 2tik, LH 4ra arteko haurrei. Astean behineko saioak dira eta ordu eta laurden irauten dute. Datorren ikasturtean (2025-2026) 2 urteko haurren saioak Urmendin eskainiko dira bertako espazioa adin tarte honetara egokitua dagoelako eta gainontzeko taldeen saioak Ikastolako psikomotrizitate gelan izango dira. Eskaintza familia guztietara iritsiko da eskolaz kanpoko gainontzeko jarduera guztiekin batera. Beraz, interesa duenak bertan izango ditu zehaztasun guztiak.

Elkarrizketa

Joxe

Fernandez



Intza Zabaleta eta Naroa Zulaika

Kontatuko diguzu laburki zure biografia?

Jaiotzez Leongo herri batekoa naiz, Astorgakoa. 14 urterekin Madrilgo sukaldaritza eskolara joan nintzen, eta bertan 5 urte igaro nituen. Erdi ta goi mailako graduak egin nituen, lehena 2 urtekoa eta bigarrena 3 urtekoa. Handik ateratakoan, lanean hasi nintzen. Baina, nire irakasle batek gozogintza erakusten zuen eta beregana gerturatu nintzen lanean hasteko prest nengoela esateko. Hark Luis Irizarrengana bidali ninduen. Donostia ingurura joateko proposamena egin zidan eta onartu egin nuen. Beraz, Gurutze Berrin hasi nintzen, Oiartzunen, Xabier Zapiirainekin batera. Urte batzuen ondoren, Donostian, Elizondon... hamaika tokitan ibili naiz.

Euskara ikasi nuen Oiartzunera etortzerakoan, arratsaldeak aprobetxatzen nituen klaseetara joateko. Miren izeneko irakaslea nuen. EGA tituluaren baliokidea dena atera nuen. Lagunei beti euskaraz hitz egiteko eskatzen nien, nik ere erabili ahal izateko.

Noiz hasi zinen Haurtzaro Ikastolako jantokiko sukaldari lanetan?

Etxalarreko Venta hotelean ordutegi zorrotzarekin ibili ondoren, nire seme-alabekin nuen harremana sendotzeko, ikastolan jantokiko sukaldari izateko aurkeztu nintzen 2005. urtean.

Asko aldatu dira gauzak hasi zinenetik gaur egun arte?

Pandemiak lana gogortu zuen, burbuilak zirela eta. Hasieratik dezenteko aldaketa egon da, bai.

Zenbat otordu ematen dituzu egunero?

Gutxi gorabehera 440 otordu inguru eskaintzen ditut. Baina pandemia aurretik 600 inguru ziren.

Zer egingo duzu ekainetik aurrera?

Negar. kar-kar. Proiektu berri baten aurrean nago, baserri bat hartu dut, egurrezko labea jarri dut, ogia egiteko, ore ama egiteko eta abar. Horrez gain, kirola egiteko nahia dut, osasuntsu mantentzeko. Ohitu beharko dut bizimodu berrira.

Zein izango da prestatuko duzun azken menua?

Barazki eta lekale purea, ondoren, kroketak azalorearekin eta postrea, txokolatezko krema.



Euskara ikasi
nuen Oiartzunera
etortzerakoan,
arratsaldeak
aprobetxatzen nituen
klaseetara joateko.
Miren izeneko
irakaslea nuen.

**Zure errezetak oso kuttunak dira.
Idatziko al duzu zure errezeta liburua
noizbait?**

Bai, denborarekin. Orain proiektua dela
eta lanpetuta egongo naiz, baina iraila
aldera idazten edo grabatzen hasteko
ideiarekin nago. Atsedeen pixka bat ere
hartu beharko dut, ezta?

**Joxek gauza asko eskaini dizkio
Haurtzaro Ikastolari. Zer jaso du Joxek
Haurtzaro Ikastolatik?**

Egunero jasotzen duena, zuen, umeen
maitasuna eta gertutasuna. Ikastolak
ikastola egunean eskaintza egin dit,
baina nik ez dut ezer behar. Lehen esan
bezala, egunerokoarekin nahikoa dut.
Egunero hurbiltzen zaizki umetxo pila bat,
eta "Joxe-Joxe!" deitzen didate. Horrekin
nahikoa dut.

Kulturartekotasuna

Gauza jakina da azken urte hauetan hainbat beharrek eraginda mundu mailan migrazio mugimendu handiak ari direla gertatzen. Lan duin baten bilaketa, bizitza hobeago baten itxaropena edo gerretatik eta jazarpenetatik ihes egiteak jendea herrialde garatuetera migratzera bultzatu du.

Oiartzun ere badugu horren isla eta familia horiek ikastolako komunitatean ditugu.

Aniztasuna kontuan hartuta, nola txertatu daitezke gure kulturen, lehenengo zailtasuna hizkuntza eta "euskara" izanik?

Badugu zer esana eta zer egina!

Guraso batzuekin kafe tertulia bat izan genuen eta hainbat galdera egin genizkien gure komunitatean eroso eta barneratuta senti zitezen zer beharko luketen jakin eta ondoren lantzeko.

Kulturartekotasunaren begiradarekin hasi genuen lanketa, gurean beste herrialdeetatik etorri diren familiak parte esanguratsua direlako eta etorkizunean hemen, herrian, tokia izango dutelako.

Guraso Ordezkarien Foroan familia horien beharrak zerrendatu genituen eta harrera protokolo baten beharra identifikatu genuen.

Hezkuntza Batzordeko lantaldean forma eman zaio guzti horri eta ikastolak duen harrera planean familien atala osatu da.





Aniztasuna
kontuan hartuta,
nola integratu gure
kulturan? lehen
urratsak.

FAMILIAREKIN HARREMANA

Ikastolak familiarekin izango duen harremana

- Zuzendaritzak gurasoei ikastolako harrera plana ezagutaraziko die.
- Lehenengo harremana zuzendaritza eta orientazio departamentuak egingo badute ere, egokitzapen garaia amaitzean tutorea familiarekin bilduko da.
- Ahal den neurrian Guraso bilera orokorretara gonbidatu eta animatu.
- Ikastolak ohikoak dituen festa eta ospakizunetara gonbidatu eta animatu.

Familien arteko harremana

- Ikasle taldeko guraso "bidelagunak" izendatu ikasturte hasierako gelako gurasoen bileran (guraso ordezkariak? Beste guraso bat?)

Bidelagunaren funtzioak:

1. Gelako guraso bileretan xuxurlari lana egin (aurretik tutorearekin elkartu daiteke).
 2. Herriko, ikastolako eta gelako ekintzen berri eman eta parte hartzera animatu.
 3. Guraso taldearen mezuak komunikatu (itzuli) modu laburtuan.
 4. Bidelagunen foroan parte hartu (esperientziak partekatu harremana aberasteko asmoz).
 5. Hizkuntzaren hurbilpena egin (agurrak, eskerrak... euskaraz adierazi/irakatsi).
- Bidelagunen foroa:
Bidelagun diren guraso hauetatik etapa bakoitzeko guraso batek talde eragilea osatuko du.
Talde eragileak Bidelagunen foroa bideratzeko ardura izango du (maiztasuna zehaztu, landu beharrekoak adostu, webgunean osatzeko informazioa elkartu, etorri berriak diren familien arteko topaketak antolatu, eskertza ekitaldia...).

Dokumentu hau bizia da, martxan jarri eta baloratu egingo dugu, beharrak asetzen ote dituen aztertuko dugu eta horren arabera aldaketak egingo ditugu.

Gaur honaino iritsi gara baina lanketarekin jarraitu nahi da.

KONTSEILUKIDE BERRIA

2025eko urtarrilean, kide berri bat bildu zitzaigun Kontseilura, gogo eta ilusio handiz ikastolaren alde lan egiteko konpromisoarekin.

Ongi etorri, Mikel!

Pentsatu eta ekiteko indar berria eta freskura, ikastolak etorkizunean edukiko dituen erronkei aurre egiteko lagungarri izango dituenak. Ez baitira berdinak gure buruari jartzen dizkiogun erronkak eta kanpotik jartzen dizkigutenak. Azken horiei derrigor egin behar zaie aurre eta horrek sormena eskatzen du.

BIZITZAK AUERRERA JARRAITZEN DU

Azkenaldi honetan komunitateko hainbat kidek utzi gaituzte, horrek dakarren hutsunearekin. Familia horien samina gurea ere bada, eta gure eskuetan dagoena egingo dugu atsekabeari buelta emateko. Bizitzak aurrera egiten du eta trabei elkarrekin hobe egiten zaie aurre.

Besarkada estu bat guztion izenean.

BIDAIA IRAGANERA, BIDAIA BARNE MUNDU PERTSONALERA...

Bazen behin... Horrela hasi ohi ziren ume gineneko ipuin edo istorio asko. Edo ez?

Bazen "Kukurruku" batekin hasten zenik ere. Horixe da hona dakarkiguna, hain juxtu, "Kukurruku" batekin hasten den **Xaxarko** ipuina, alegia.

Ipuinak ohikoan, eta tamainaz "txiki" izanagatik ere, ez dira gauza makala. Hitzak eta irudiak elkarrekin txirikordatuta agertzen zaizkigun obra txiki horietaz ari gara. Ikusitakoarekin, ikututakoarekin, irakurritakoarekin edota entzundakoarekin irudimena martxan jartzen diguten obra horietaz, hain zuzen, edota bidaia errepikaezin batera eraman gaitzaketen altxor horietaz.

Aurtengo ikasturtean ere eguneroko ogi izaten ari dira bidaia errepikaezin horiek gurean. Baina bada bat besteen artean bereziagoa egin zaiguna. Eta bidaia errepikaezin bat bizi izan dugu guk ere, hezitzaileok, 1-2 adin tarteko haurrekin, Harri Gainen.

Ipuin kuttuna dinamikarekin haurrek poltsatxo maite horretan ekarri dituzten ipuinen arteko bat izan da bat hezitzaileok gure haurtzarora eraman gaituena: **Xaxarko**. Eskuetan hartu orduko, eta irudia ikusi hutsarekin... horra, bidaia haurtzarora; sentsazioak, irudiak, soinuak, emozioak...



Hamarkada batzuen ondoren, gure haurtzarora eraman gaitu obrak. Ipuinek magikotik duten adibide ederragorik? Eta seguru gure txikiak ere irudimenezko bidaia hori egitera eraman dituela; bakoitza bere bidaia pertsonalean, baina denok ipuin berarekin gozatuz. Orduko testuak, irudiak... Urteak pasa diren arren, eta denborak aurea egin badu ere, altxor horiek iraungitze datarik ez dutenaren seinale dugu hori; hiltzen ez direnaren seinale.

Usainek eta zaporeek iraganera eraman gaitzakete, izan ginen toki hartara; sentitu genuen hartara, bai eta kantuek, doinuek, jolasek eta nola ez ipuinek...

Haurren begiradapean interesa piztu duen ipuina da **Xaxarko**; errepikapenak, irudiak, hitzak, galdera-erantzunak, soinuak... Bizitzaren zikloak, finean. Erabatekoa da haurren murgiltzea, baita helduona ere. Orrialde gutxi batzuetako album ilustratu batekin hori guztia egiteko ahalmena izatea ez da gauza makala!



Baina hori nahikoa ez, eta gure txikiek komunitatearekin lokera edo lotura egiteko aukera ere izan dute; herriarekin, herrikideekin lotu eta harremana sendotzekoa. Beraien mundu txiki horretako leihoak apur bat irekitzeko. Horrela, ipuineko okinari izena jarri genion berehala, Felipe. Fikziotik errealitaterako saltotxo eginez, Haur Eskolatik ere bixita egin izan diogun okina. Ipuina behin baina gehiagotan bere izenarekin kontatu ondoren, okindegira joan eta gure bizipenen berri eman genion. Aski ezaguna eta maitea zuen hark ere ipuin hau, okinak ere izan baitu bere haurtzaroa eta **Xaxarko** bere ipuin kuttuna. Zer da hau magia ez bada?

Haur eskolako guraso batzuen laguntzaz, beste behin ere komunitatea aipatu behar..., **Xaxarko** ipuinaren ale bat opari iritsi zaio okindegira. Gorde dezala, mantendu dezala, guk ere hala egingo dugu eta!

Gure txikiekin ipuinak kontatzen jarraituko dugu, aipagarri daukagun ipuin hau beste askoren artean, bizitzaren lehen uneetatik literaturarekin gozatzea zer den transmititzen saiatuko gara, bidaiatzen, barre egiten, beldurak sentitzen, horiek kudeatzen, harremanak sortzen, irudimena garatzen... gure kultura eta hizkuntza ardatz dugularik, noski. Gure etorkizuneko gizartean beraiek gauza bera egingo dutenaren esperantzaz, eta haurtzaroko ipuin batek bizipen magikoa sortuko dienaz ziur, ez dadila katea eten!

Harri Gain, ertainen taldea

“Oinetakorik gabeko bidea”

Oinetakoak kendu eta azalak lurra ukitzen duenean, behin sustrai izan ginela gogoratzen du gorputzak. Mundua hankazpitik deskubritu eta ezagutu dezakegu: euriak sortutako putzuen freskotasuna, eguzkiak berotutako baldosaren gozotasuna, belar luzeek egiten dituzten kilimak... Oinutsik ibiltzea hazi eta garatzeko modu natural bat da, gorputzaren eta lurraren arteko elkarriketa bat, non zentzumenak esnatzea eta inguru nahiz naturarekin lotura zuzena ahalbidetzen den.

Ikasturte honetan, Haur Eskolan pil-pilean egon den gai bat izan da, eta gaiak hausnarketarako bidea ireki du. Zeren beldur gara? Haurrek mina hartuko duten beldur? Hoztuko ote diren? Eroso egongo ez direnaren kezka?

Argi dagoena da haurrak bere lehenengo hilabeteetan gorputzeko atalekin esploratzen duela ingurua, eta beraz, informazioa hainbat modutara barneratzen duela. Prozesu horretan oinek berebiziko garrantzia dute, ez soilik informazioa eskuratzeko bide bezala erabiltzen dituelako, baizik eta hori guztia egiten ari den bitartean, bere euskarria ere badirelako. Oinekin materiala bultzatu, hainbat espazioetara mugitu, beraien gorputzarekiko mugak findu eta hasieran esan bezala, hainbat testurekin esploratzeko aukera ematen du, besteak beste.

Oinutsik ibiltzeak oinen artikulazio eta muskulua sendotzen laguntzen du, bide batez haurren postura eta oreka hobetuz. Haurrek ezin dute galtzerdiekin edota zapatekin oinutsik jaso dezaketen sentsazio eta esplorazio maila berdina izan, eta gure helburua da ahalik eta prozesu osasuntsuena eta aberasgarriena biziaraztea.



Osasunaren gaiari dagokionez, gaur egun badakigu haurrak ez direla gaixotzen oinutsik ibiltzeagatik. Birusak eta hotzeriak ez dira hanketatik sartzen, arnasbideetatik baizik. Hori horrela izanik, ezin dugu haurren garapen prozesua oztopatu gaixotu daitezkeenaren beldur garelako.

Hori dena mahai gainean jarri genuen eta ikasturtean zehar horren inguruko lanketa egiteko konpromisoa hartu genuen 1-2 urteko haurrekin. Lehenik eta behin, haur eskolako barne espazioan haurrek oinutsik ibiltzean zuten jarrereri erreparatu genien. Gehienek kasuan hankazpia lurrarekin kontaktuan sentitzean gustura eta eroso ibiltzen zirela ikusi genuen. Beste haur batzuek, ordea, ohitura faltagatik edota babes beharra zutelako, oinetakoekin ibiltzea nahiago zutela sumatu genuen. Hortaz, argi dago haur bakoitzaren sentsazio eta beharrak oso pertsonalak direla eta horiek errespetatu behar ditugula.



Zapatak eranstera gonbidatzen zituzten egoera eta testuinguruak sortzen hasi ginen baina argi duguna da guk proposamenak egiten ditugula, ez ditugu haurrak oinutsik ibiltzera behartzen. Hala ere, puntu honetan, haurren autonomiari egin nahi diogu aipamena. Izan ere, zapatak kentzeko gonbidapena egiten hasi ginenetik, batez ere txikiak hasi dira beraien zapatak bakarrik kendu nahian, eta hori beste aurrerapauso garrantzitsu bat da garapenean.

Praktika hori haur eskolako kanpo espaziora ere eraman dugu. Kontuan izanda haur eskolako kanpo espazioa segurua dela eta ez dagoela mina hartzeko arrisku handirik, haurrei bertan oinutsik jolastu eta ibiltzeko aukera ematen diegu. Tenperatura, testura, forma eta sentsazio desberdinak bizitzeko aukera izaten dute, eta pixkanaka hankazpia lurrarekin kontatuan sentitzera ohitzen joan dira.

Gai horri behar duen arreta eta kontzientzia eskaintzen diogun lehen ikasturtea da, eta oraindik haurren jarrerak eta sentsazioak behatzen jarraitzen dugu. Batzuetan ez da erraza helduon beldur eta sentsazio propioak alde batera uztea, baina azken buruan, haurren garapena da oinarria.



HH3

TXORIAK GU BEZAIN ARTISTAK



Gure ikasle batek lurlean topatutako txori habia bat ekarri zuen gelara. Gelan ilusio handiz erakutsi zigun eta mailakideen kuriositatea piztuz, galderak egiten hasi ziren: zerez dago osatua? Zergatik ditu lokatz puska? Txoriak nola egin du habia?

Beraien jakin-mina ikusita, habia arretaz kuxkuxeatzeari ekin genion. Eta a zer nolako artelana deskubritu genuen!

Horiek horrela, Txara basora joan ginen, txorien tokira, habiaren osagaiak bilatzera. Naturako elementu horiek hartuta, gu ere txorien antzera habia bat egiten saiatu ginen. A zer nolako esperientzia habiak egitearena! Eta a zer nolako artistak, bai txoriak eta baita gu ere!

HH 3ko ikasleak



HH4

TXORI HABIA



1. Mikel habia egiten.

Lanbideen gaian murgildurik ginela, Mikelek (lanbidez arotza izaki) bere lanaren berri emanez, txorientzako habia egin zuen. Ondoren, udaberrian murgilduta txoriak kantuan hasi zitzaizkigula kontuan izanik, txori habia hau margotzea erabaki genuen, ondoren ikastolan zintzilik jartzeko. Denen artean apaindu eta janaria jarri genion, ondoko zelaian txori familia bati goxo bizitzeko aukera emanez.

Ea, sunsuna, txoka, berdeloia edota kardiñero familia bat gerturatu eta ikusteko aukera dugun. Ea ikastola kolorez eta kantuz betetzen zaigun!


2. Landutako ipuina eta sunsuna txoria.



3. Habia magnolioan jartzen.



4. Gure habia txorientzako prest.



06. HATZAK BETE LAN

HH5

“BARATZE BAT NAHI DEIZÜT EGIN...”

Zer da baratze bat? Zer egin behar dugu baratze bat sortzeko? Zeintzuk dira eman beharreko pausoak? Zer behar dugu? Nola lortuko dugu behar dugun hori? Non kokatuko dugu hazi eta landare bakoitza? Zer egin behar dugu erein eta landatu ondoren? Zer egingo dugu jasotzen dugun uztarekin? Goazen elkarrekin pentsatzera! Pentsatu, sentitu eta ekin! Denok elkarrekin!

Lur eremuaren garbiketari ekin eta ongarria bota ondoren, erein eta landatu beharreko hazi eta landareen bila joan gara. Garaiko produktuak zein diren jakin ondoren, ikastolara ekarri ditugu. Baratzaren diseinua pentsatu, haziak erein, landareak landatu, ureztatu eta txarteltxoak idatzi eta jarri ditugu baratzeko produktu bakoitza non dagoen jakiteko. Txorimaloa ere ez zaigu ahaztu! Gure baratzeko zaindaria izango da.

Orain uztaren zain gaude, eta uzta jaso eta gero, dastatzeko prest!



Baratzea jartzeko eremua garbitzen



Lurrari ongarria botatzen



Landareen eta hazien bila



Landareak landatzen



Haziak ereiten eta ureztatzen



Baratzea prest

LH1

UPCYCLED ART-ISTAK

Artistak gara, **bai horixe!!!**

Arte korrante hau izan dugu gure inspirazio iturri eta begira zer nolako arte lanak sortu ditugun!





Gure artean famatua eta gurea den Gorriti artista imitatu dugu. Begira nola "kopiatu" dugun bere **azul infinitua**.



Eta ondoren...

Ikasitakoa praktikan jarri dugu.

Horri esker **komunitate** bikainak egin ditugu, gure desioak, beharrak, lasaitasuna, ongizatea, elkartasuna... denon artean bizitzeko.



06. HATZAK BETE LAN

LH2

MARIA TERESA MARTINEZ ETA ESKULTURAK

Ikasturte honetan gure mailakide den Maialen Berasategi Arregik izebak egindako bi txotxongilo ekarri zituen ikastolara. Mailakideak txundituta geratu ginen eta gure curiositatea asetzeko asmoz bere izebarekin harremanetan jarri ginen. Maria Teresa Martinezek Ikastolara etortzeko gonbita gustura eta ilusioz hartu zuen eta gurean izan zen.

Ikastolan eskulturak egiteko prozesuaz hitz egin zigun: eman beharreko pausoak, erabilitze dituen materialak, guztiak berrerrabiliak, eta baita kola nola egiten duen ere. Bere katalogoa erakustez gain, bertako txotxongilo batzuk ekarri zituen guk ikusteko.

Bukaeran, erronka hau luzatu zigun: guk pertsonaiak diseinatu ezkerro, berak guretzat sortuko zituela. Guk erronka hau gure egin eta Gau beltzeko pertsonaiak diseinatu genizkion. Jarraian berak egindakoaren emaitza zoragarria:


Eskerrik asko Maitere gurean izateagatik!

LH2ko mailakideak



LH3

"GAUZA KURIOSOA OSASUNARENA" EMOZIOAK



Osasuna izatea ez da soilik gaixotasunik ez izatea. Osasuna ongizate fisikoaz gain, ongizate emozionala ere bada. Osasuna gorputza baino zerbait gehiago da. Emozioak eta harremanak ere zaindu behar dira ondo sentitzeko.

LH3. mailakoak azken hilabeteen EMOZIOAK lantzen aritu gara. Ohitura osasungarriak zeintzuk diren ikasi dugu erronkako irakasgaian. Plastikan, bizitzan zehar bizitako momentuak emozioekin lotu ditugu. Tutoresa eta baliotako tartetan, hainbat emozio biziara dizkiguten obra literarioak irakurri ditugu taldean eta horiei buruz hizketan aritu gara, elkar entzun eta elkarren berri gehiago izateko.

Eta zu...

*Nola sentitzen zara lagunekin zaudenean?
Eta gurasoekin?
Eta familiakoekin?*

06. HATZAK BETE LAN

LH4

OINHERRIREKIN ELKARLANEAN

Abenduaren 12an gutun bat jaso genuen. Talde sekretu baterako deialdia zen. Deialdira joan ginenok ekimenaren berri jaso genuen. Hainbat saio egin ondoren, irakasleak ere konplize egitea erabaki genuen. Martxoaren amaieran hasi eta apirilean zehar LH4ko ikasle eta irakasleok Oinherriekin elkarlanean beste hiru saio egin ditugu.

Lehen saioan, Landetxe Kultur Aretoko Endikak egutegia diseinatzeko ideiak eskatu zizkigun. Gure adineko herritarroi begira egingo diren ekimenetarako gure ikuspegia jaso nahi izan zuen. Proposamen ezberdinak pentsatu, baloratu eta hautaketa egin eta gure aukera helarazi genion.

Bigarren saioan, Abaraxka ludotekako eskariari eutsiz, herriko udalekuetarako taldeen izenak diseinatzen aritu ginen. Aurtengo gaia Euskal Mitologia izango denez, bertako pertsonaien izenak jarriko zaizkie taldeei.

Azkenik, Joana alkateak eskatuta, herrian egingo diren etxe berrien inguruko espazioen lanketa egin genuen. Herrian eginiko lanari jarraiki, gure ikuspegia jaso zuten etxeen itxura, lokalen erabilera eta etxe arteko espazioen ezaugarrien inguruan, besteak beste. Horrez gain, Ludoteka ondoan gure ekarpenak jasotzeko eremu bat ere sortu da.



**OIARTZUNGO
ZAITZAILEAK,
GORA
TRIANGELU
HORIA!**



LH5

MATERIA GARA: SUBSTANTZIATIK PRODUKTURAKO BIDEA

Hirugarren unitatera iritsi gara jada, zeinen azkar pasatzen ari zaigun ikasturtea! Ingurunean "Materia gara" gaian murgildu gara. Materia garela dio izenburuak, baina zer ote da materia? Inguruan dugun guztia dela esan genezake, baina propietate batzuk eduki behar ditu: masa, bolumena eta sartzetasuna. Bai, bai, SARTEZINTASUNA! Horixe izan da guretzat ere hitz berriena, materiak lekua okupatzen duela adierazi nahi du, ezin dutela bi materiek leku berean egon momentu berean.

Horrez gain, materiak substantzia desberdinak sortzen dituela ere ikusi dugu eta bi motatakoak aurki ditzakegula: substantzia puruak eta nahasteak. Horiek nahasteen zer gertatzen den probatzeko, esperimentuak egin ditugu gure geletan eta ondorioztatu dugu substantzia batzuk nahasteen ez direla bereizten osagaiak, nahaste homogeneoak direla, eta beste batzuetan osagaiak bereizten direla, nahaste heterogeneoak direla. Interesgarria, ezta? Primeran pasa genuen hori frogatzen!

Etorkizunean
zein izango ote
da gure lanbidea?



Eta zertarako nahasten ditugu substantziak? Ba produktu berriak sortzeko! Eta nork sortzen ditu? Lanbide pila bat elkartzen dira prozesu horretan, 3 sektoretakoak, gainera. Produktua sortzeko prozesu horietako bat aurrez aurre ikustera joan ginen Eguzkiborda baserrira, gazta nola egiten duten ikusi eta bizitzeko asmoz, Josuren paregabeko laguntzarekin.

06. HATZAK BETE LAN



LH6

MELA-MELA, BLAI-BLAI

Bai izen erakargarria duela 6. mailako azken hiruhileko Gorputz Heziketako unitate didaktikoak: "Mela-mela, blai-blai". Izen horrekin argi dago, ikasleez gain, protagonista nagusia ura izan behar duela.

Unitatean zehar natura eremuko urak (errekak, euri-putzuak, ...) eta eremu artifizialak (kiroldegiko igerilekua eta ikastola bera) izan dira lanketarako erabili diren espazioak.

Bi saio eder egin ditugu igerilekuan. Horietan,

materialarekin eta gabe, modu ludikoan, ikasleek jolasak eta jokoak sortuz igeriketako kontzeptuak landu dituzte: propulzioa eta apnea, murgilketa, adierazpena, flotabilitatea,...


Bateko oihuak eta barreak, besteko ur tragoxkak eta sustoak,... etengabe landu dituzte beraien ludikotasuna (bereziki), aisialdia antolatzeko trebaketa, talde lana, sormena eta ariketa fisikoa, noski. Bizitzarako hezkuntza!

DBH1

AQUARIUMERA BISITA

Martxoan Donostiako Aquariumera joan ginen arrainak ikustera, ingeles arloan *The secrets of the Ocean* izeneko unitatea landu genuelako.

Iritsi ginenean oso emozionatuta ginen Aquariumera joan ginelako. Bertan bikain pasa genuen, lagunekin jolasten, azalpenak entzuten, eta batez ere marrazoak ikusten. Gainera, jenderik ez zegoen eta bakarrik egon ginen.





DBH2

BIZIKLETA MODU SEGURUAN GIDATZEKO SAIOAK

Aurtengo ikasturtean, DBH 2ko ikasleak, bizikletaren erabilera sakonago lantzen ari gara, ikuspegi teoriko eta segurtasunaren aldetik, horren helburua ez delako soilik ikasleek pedalei eragiten ikastea, baizik eta bizikletaren funtzionamendua ulertzea, segurtasun neurriak barneratzea eta erabilera arduratsua izatea.

SAIOEN ANTOLAKETA

Gure saioek bi zati izango dituzte. Alde batetik, bizikletaren osagaiak eta beraien funtzionamenduak ikasiko ditugu eta baita segurtasun arauak eta egoera desberdinetan nola jokatu ere. Ondoren, praktika saioak egingo ditugu, non ikasitakoa praktikan jarriko dugun. Horrez gain, bizikleta nola mantendu ere landuko dugu, bizikletaren egoera txarrak arriskuak sor ditzakeela ulertzeko.

Lehenengo saioa:

Lehenengo saio honetan eduki teorikoak landuko ditugu, hain zuzen, oinarritzko zirkulazio seinaleak, bizikletaren mantenu lanak, erabili beharreko materiala eta segurtasunez ibiltzeko aholku eta egin beharreko maniobrak.



Bigarren saioa:

Bigarren saioan, Madalensorora joango gara. Bertan bizikleta menderatzen ikasteko ariketak egingo ditugu, oreka mantentzea, taldean zirkulazioa lantzea, koordinazioa lantzea, bizikleta gainean segurtasuna lantzea...

Hirugarren saioa:

Hirugarren saioan, taldea Iturriotzera joango gara bizikleta kalean eta errepidean nola ibili lantzeko, eta baita errepideetan dauden arriskuei erreparatzeko.

Laugarren saioa:

Azken saio honetan, ikasitakoa guztia praktikan jarriko dugu eta horretarako, Arditurrira joango gara.

ONDORIOAK:

Irakasleak esan bezala, ohikoa ez dena egingo dugu saio hauetan, hau da, bizikletan ibiltzerakoan arau guztiak errespetatzen saiatuko gara. Unitatea bukatzerakoan, ikasitakoa erabilgarria izatea nahi genuke eta ulertzea zirkulazio arauak errespetatzeak segurtasunarekin lotura zuzena duela.

Naia, Olivia, Aroa eta Nikole


KULTURA KLASIKOA

Unitatean zehar "Kultura klasikoa" arloan Antzinako Grezia eta Erromaren inguruko lanketa egin dugu. Besteak beste, geografia, historia eta artean oinarritu gara zibilizazio horien ikerketa gauzatzeko. Behin aipatutako gaiak landuta, horiekin erlazionatutako proiektuak burutu ditugu taldeka. Hona hemen XXI. mendeko artisten artelan batzuk:



DBH3

HITZALDIA



Ibon Oregi



Istripu batean biktimak bi aldetan daude eta denek behar dute laguntza.

bon Oregi Bizkaian jaio arren, Zarautzen bizi den 48 urteko kirolari bat da, hiru seme alaben aita eta gorputz hezkuntzako irakasle lana egiten zuena Zumaiaiko Institutuan.

Bere kirol lorpenen artean daude 2014an Hawaiiko Ironmanera sailkatu izana eta froga hura bukatu izana. Kirol frogen artean gogorrenetakoa suertatu zitzaion, astean 6 eguneko entrenamendu dedikazioa eskatu baitzion, hain zuzen ere.

Istripu bat gurutatu zen Ibonen bizitzan, ordea, 2020an.

Istripua honelaxe gertatu zen: goizeko entrenamendu saio bat egiten ari zen Jokin bere lagunarekin, Zarautz eta Getariako herriak batzen dituen errepidearen ondotik. Alde batera errepidea, bestera amildegia eta arrokak. Kotxe bat nabaritu zuten beraiengandik oso gertu pasatzen eta kotxe horrek, ez zuen eman beharreko kurba eman, zuzenean bi kirolariak airean eraman zituelarik.

Jokinek bi lepauztaiak eta omoplato bat gutxienez hautsiak zituen, kolpeak gorputz osoan zehar... Ibon, ordea, sastraka batzuen artean ia arroketa eroria zegoen eta lehen erreakzioa Jokinen bila joatea izan zen. Ezin, ordea, altxatzen saiatzean hanka falta zuela ohartu baitzen. Egoera kritikoa zen. Torniketea, Jokinen garraxiak, konortea ez galdu nahi izatea, odola... ordurako anbulantzia bat bidean zen. 23 minutuan heldu zen beraiengana baina Ibonentzako adina medikalizatua ez zegoenez, Jokin eraman zuten



eta Ibonek hortxe ikusi zuen bere azkena. Jokini, bere emazte eta haurrez despeditzeko esan zion Ibonek eta bigarren anbulantziaren zain geratu zen, odolusten ari zen bitartean, bizirik ateratzea soilik buruan.

52 minutura heldu zen bigarren anbulantzia eta iritsi bezain pronto konortea galdu zuen Ibonek. Handik 7 ordura ospitalean esnatu zen eta bizirik zegoela ohartzean hasi zen bere bizi berriari aurre egiteko erronka.

Istripua sortu zuen emakumea bi aldiz saiatu omen da gerora bere buruaz beste egiten eta Ibon, gai honetan ere ikuspegi eraikitzaile batean aritu da lanean, emakume horrekin geratu eta hitz eginez.

Ospitalean hilabete eta aste batez egon ondoren (errehabilitazio saio gogorren artean) itzuli zen azkenean etxera.

Ondoren erronka berrien bide bati ekin zion. Lanetik "bota" zuten gorputz hezkuntzako irakasle izanik, lanerako gai ez zela argudiatuta.

Orduan kirol egokituen munduan murgiltzen hasi zen, Joko Olimpiko batzuetara joateko aukera ere izan zuelarik, nahiz eta azkenean bide horri uko egin, presio eta emaitzen gainera bere gozamina eta bide berriak urratu nahian.

Gorputza errekuaratzeaz gain, psikologikoki egin beharreko lanari ere azpimarra jarri dio Ibonek, modu horretan eta laguntzarekin, berriro ere goi errendimenduko kirolera itzuli delarik, kirol egokituan, surfean hain zuzen ere.

Lagun talde on bat edukitzea izan da beste euskarri nagusi bat Ibonen errekuarazio prozesuan. Beti kontatu dute berarekin, plan guztietarako deitu, berarekin egon, zaindu, beste bat gehiago bezala tratatu... ikaragarria omen da alboan eduki duen lagun taldea.

Bere hitzaldian gogotik gozatu dugu, irakaspen asko atera ditugu beragandik, bai eta betirako gogoan geratu zaizkigun hainbat esaldi ere:

Zure bizitzako une gozoenetik garrantzenera oso denbora gutxian pasa zaitezke.

Izan lagunena lagun, zuk laguntzen dituzunek zainduko baitzaituzte beharra duzunean.

Bizitza "a tope" bizi, egun bakoitza azkena balitz bezala.

Istripu batean biktimak bi aldetan daude eta denek behar dute laguntza.


Jarri ilusio txikiak zure bizitzan, horiek baitira aurrera egiten lagunduko dizutenak.

Nikole Ruiz de Eguino eta Markel Ibarguen DBH 3ko ikasleak.

DBH4

IKASTOLAKO UR KONTSUMOA MURRIZTEKO BALIABIDEAK IKERTZEN...

DBH-4.mailako Lanbide jardueri Aplikatutako Zientziak arloko ikasleek, aurrean antolatu eta garatu dugun Aste Ekosozialaren proiektuan, alde batetik, kutsatutako ur zikinak filtratu eta garbitzeko eta bestetik, ikastolako ur kontsumoa murrizteko baliabide teknikoak ikertzen, aztertzen eta balidatzen aritu gara. neurriak barneratzea eta erabilera arduratsua izatea.



/ 1.

Ur zikinak filtratu eta garbitzeko tresnak sortzeko materiala.



/ 2.

Ur zikinak filtratu eta garbitzeko tresnak.



Datorren ikasturtean, aurtengo ondorioetan oinarrituta erabakiak hartuko ditugu.



/3.

Ikastolako ur kontsumoa murritzeko baliabide teknikoak ikertzen.



/4.

Iturrietan jarritako bridak.



IHOTÉAK



INAUTERIAK





EUSKARALDIA



IKASTOLA EGUNA



TALDE BERDEA



ANIMATUKO ZARETE?


Talde Berdea, inguru giroa zaintzeko eta ikastola jasangarriagoak sortzeko jarri zen martxan. Talde berdeko kidea garen aldetik, esan dezakegu gustura hartu dugula parte.

Zergatik? Ba, kideen arteko giroa oso polita delako, adin ezberdinetakoen ikuspuntuak eta proposamenak entzuteko aukera dugulako eta batez ere ikastolako txikienei ere gure planeta nola zaindu erakusten diegulako.

Beraz, ekimenean parte hartzera gonbidatu nahiko genituzke ikasleak, ongi pasatzeaz gainera, ezinbestekoa den lan bat egiten delako. Ez dezagun ahaztu planeta bakarra dugula eta daukagun hori zaindu beharra dugula. Animatuko zarete?

DBH 4ko TALDE BERDEKO KIDEAK

PIZTU JAKINMINA



ESKUTTUN, EUSKALDUNA ETA EKINTZAILEA

Maiatzaren 7an Ikastolen Elkarateak antolatzen dituen Piztu Jakinmina jardunaldian izan ginen Haurtzaro Ikastolako "Eskuttun, euskalduna eta ekintzailea" egitasmoa aurkezten Gasteizen. Bertan, DBH 4.mailan dauden Eskuttun taldeko ikasleek parte hartu zuten, egitasmoa aurkezten beraien esperientziatik kontatuz, baita Eskuttun taldeko gidari den Donibane Azkaratek ere.

Aurkezpena 12:00etan izan zen Europa Jauregian, jardunaldiko bigarren egunean. Azalpen guztiak zehaztasunez eman genituen bertan.

Bertaratuen azalpenaz gain, Eskuttunek

"Zer ekarpen egiten duen" galderari erantzuteko ondorengo bideoa osatu genuen.



Bideoa:

<https://studio.youtube.com/video/M2FzarA0oJY/edit>

Eta bukaera gozoa izan zedin, Eskuttunekoek Eskuttuni buruz sortutako kantua joaz amaitu genuen jardunaldia, goxo eta irrifartsu.



Bideoa:

<https://studio.youtube.com/video/ytkP40eFaNc/edit>

Jarrai dezagun gure balioen lanketa egiten Eskuttun bezalako egitasmo ederren bitartez luzaroan gure ikastolan.

Aupa Eskuttun! Aupa gazteak!



ESKUTTUN

Aurten ere buru-belarri lanean aritu gara Eskuttuneko kideok. DBHko lau belaunalditako ikasle ugarik osatu dugu aurten ere taldea: 62 ikasle eta 4 begirale. Euskararen egunetik hasita jolasen kanpainara bitarte, hainbat ekintzatan hartu dugu parte, bai ikastolan eta baita herrian ere. Esaterako, Argitxoren ekitaldian, Olentzero eta Mari Domingiren etorreran, Martxoaren 8ko lanketan, ikastolako lhoteetan, Juul kanpainan eta ipuinen kontaketan, LGTBIQ+ egunaren inguruko ekitaldian, Euskaraldian eta beste hainbat ekintzatan.

Berrikuntza moduan, ikasturte honetan Gasteizera joateko aukera izan dugu Piztu Jakinmina topaketara. Bertan, Eskuttun proiektua aurkeztu genien hainbat

ikastoletako ordezkari. Aurkezpenean guk sortutako abesti batekin bukatu genuen, eta oso hunkigarria izan zen; denek zoriondu gintuzten.

Eskuttunen urteetan egindako lanak fruituak eman dituela oso nabaria da, eta horrela jarraitu nahi genuke. Beraz, eskerrik asko, bertako kide zareten guztiei eta bertan sartzeko gonbita luzatzen dizuegu besteei. Gora Eskuttun eta gora euskara!

Muxu bat,
Eskuttuneko kideak



GURE KABIA

OSTIRAL EGUERDIZ NOLAKO LUXUA
MOTXILA ASKATU ARINDUZ PIXUA
IKASGELA BIHURTZEN DA PARADIXUA

**BABES BILA DABILEN
BEZALA TXORIA (bis)**
GUK ERE ERAIKIA
DAUKAGU KABIA
**ESKUTTUNEN BAITAGO
GU DENON FAMILIA (bis)**

HONEK BADU IZENA TA BADU IZANA
HIZKUNTZAREKIN JOSTEN DUGU HARREMANA
EUSKARATIK TA EUSKARAZ EGITEN DUGU LANA

**BABES BILA DABILEN
BEZALA TXORIA (bis)**
GUK ERE ERAIKIA
DAUKAGU KABIA
**ESKUTTUNEN BAITAGO
GU DENON FAMILIA (bis)**

GOZAMENA ETA LANA ELKAR AL DAITEZKE BEREZ?
BATZUK ZALANTZA DUTE, GUK BADAIGU BAIETZ
**BABES BILA DABILEN
BEZALA TXORIA (bis)**
GUK ERE ERAIKIA
DAUKAGU KABIA
**ESKUTTUNEN BAITAGO
GU DENON FAMILIA (bis)**

ZER JANGO DU OILOAK?



17. elkar ilustrazio eta Ipuin lehiaketan **Aretz Isasa Urtxuegiak**, LH 2ko ikasleak,
1.saria irabazi du **Alaine Agirrek** idatzitako “Zer jango du oiloak”
ipuina oinarri hartu eta sortutako ilustrazioarekin.

ZER JANGO DU OILOAK?

Behin batean bazen oilo bat, eta oilo horrek zituen zazpi arrautza.

Egun osoa pasatzen zuen arrautzen gainean jarrita, arrautzak berotzen.

Egunak pasatzen ziren, eta oiloa gosetuta zegoen, baina ez zuen mugitu nahi, bere zazpi arrautzak berotu eta zaindu behar zituelako.

Halako batean, mugimendu bat igarri zuen bere gorputzaren azpian.

Altxatu zen pixka bat, eta ikusi zuen arrautza bat ari zela arrakalatzen, eta gero kraskatzen, eta arrautza kraskatu hartatik atera zuen burua txita txuri txiki batek.

Txitatxo txuriak begiak erdi-ireki erdi-itxi zituen, eta moko txikia zabaldu zuen, gosetuta, zer jango.

–Txitatxo txikitxo –esan zuen oiloak–, egon hemen apur baten, eta oraintxe ekarriko dizut zure jatekotxo.

Oiloa joan zen basora, eta handik laster itzuli zen etxera, mokoan txita txuriarentzako txitxare lodi bat zekarrela.

–Txitxare lodi bat, nire txita txuriarentzat –esan zuen. Baina oiloak oraindik ezer jan gabe jarraitzen zuen, gero eta gosetuago.

Orduan, bigarren arrautza hasi zen arrakalatzen, eta gero kraskatzen, eta arrautza kraskatu hartatik atera zuen burua txita lasto-kolore txiki batek.



Txitatxo lasto-koloreak begiak erdi-ireki erdi-itxi zituen, eta moko txikia zabaldu zuen, gosetuta, zer jango.
 –Txitatxo txikitxo –esan zuen oiloak–, egon hemen apur baten, eta oraintxe ekarriko dizut zure jatekotxo.

Oiloa joan zen basora, eta handik laster itzuli zen etxera, mokoan txita lasto-kolorearentzako txingurri guri bat zekarrela.
 –Txitxare lodi bat, nire txita txuriarentzat, eta txingurri guri bat, nire txita lasto-kolorearentzat –esan zuen.
 Baina oiloak oraindik ezer jan gabe jarraitzen zuen, gero eta gosetuago.

Orduan, hirugarren arrautza hasi zen arrakalatzen, eta gero kraskatzen, eta arrautza kraskatu hartatik atera zuen burua txita hori txiki batek.
 Txitatxo horiak begiak erdi-ireki erdi-itxi zituen, eta moko txikia zabaldu zuen, gosetuta, zer jango.
 –Txitatxo txikitxo –esan zuen oiloak–, egon hemen apur baten, eta oraintxe ekarriko dizut zure jatekotxo.

Oiloa joan zen basora, eta handik laster itzuli zen etxera, mokoan txita horiarentzako kilker potolo bat zekarrela.
 –Txitxare lodi bat, nire txita txuriarentzat, txingurri guri bat, nire txita lasto-kolorearentzat, eta kilker potolo bat, nire txita horiarentzat –esan zuen.
 Baina oiloak oraindik ezer jan gabe jarraitzen zuen, gero eta gosetuago.

Orduan, laugarren arrautza hasi zen arrakalatzen, eta gero kraskatzen, eta arrautza kraskatu hartatik atera zuen burua txita arrosa txiki batek.
 Txitatxo arrosak begiak erdi-ireki erdi-itxi zituen, eta moko txikia zabaldu zuen, gosetuta, zer jango.
 –Txitatxo txikitxo –esan zuen oiloak–, egon hemen apur baten, eta oraintxe ekarriko dizut zure jatekotxo.

Oiloa joan zen basora, eta handik laster itzuli zen etxera, mokoan txita arrosarentzako txitxar mardul bat zekarrela.
 –Txitxare lodi bat, nire txita txuriarentzat, txingurri guri bat, nire txita lasto-kolorearentzat, kilker potolo bat, nire txita horiarentzat, eta txitxar mardul bat, nire txita arrosarentzat –esan zuen.
 Baina oiloak oraindik ezer jan gabe jarraitzen zuen, gero eta gosetuago.

Orduan, bosgarren arrautza hasi zen arrakalatzen, eta gero kraskatzen, eta arrautza kraskatu hartatik atera zuen burua txita laranja txiki batek.
 Txitatxo laranja begiak erdi-ireki erdi-itxi zituen, eta moko txikia zabaldu zuen, gosetuta, zer jango.

–Txitatxo txikitxo –esan zuen oiloak–, egon hemen apur baten, eta oraintxe ekarriko dizut zure jatekotxo.

Oiloa joan zen basora, eta handik laster itzuli zen etxera, mokoan txita laranjaarentzako matxinsalto luze bat zekarrela.
 –Txitxare lodi bat, nire txita txuriarentzat, txingurri guri bat, nire txita lasto-kolorearentzat, kilker potolo bat, nire txita horiarentzat, txitxar mardul bat, nire txita arrosarentzat, eta matxinsalto luze bat, nire txita laranjaarentzat –esan zuen.
 Baina oiloak oraindik ezer jan gabe jarraitzen zuen, gero eta gosetuago.

Orduan, seigarren arrautza hasi zen arrakalatzen, eta gero kraskatzen, eta arrautza kraskatu hartatik atera zuen burua txita gorri txiki batek.
 Txitatxo gorriak begiak erdi-ireki erdi-itxi zituen, eta moko txikia zabaldu zuen, gosetuta, zer jango.
 –Txitatxo txikitxo –esan zuen oiloak–, egon hemen apur baten, eta oraintxe ekarriko dizut zure jatekotxo.

Oiloa joan zen basora, eta handik laster itzuli zen etxera, mokoan txita gorriarentzako labexomorro goxo bat zekarrela.
 –Txitxare lodi bat, nire txita txuriarentzat, txingurri guri bat, nire txita lasto-kolorearentzat, kilker potolo bat, nire txita horiarentzat, txitxar mardul bat, nire txita arrosarentzat, matxinsalto luze bat, nire txita laranjaarentzat, eta labexomorro goxo bat, nire txita gorriarentzat –esan zuen.
 Baina oiloak oraindik ezer jan gabe jarraitzen zuen, gero eta gosetuago.

Orduan, zazpigarren arrautza hasi zen arrakalatzen, eta gero kraskatzen, eta arrautza kraskatu hartatik atera zuen burua krokodilo berde itsusi batek.
 Krokodilo berdeak begiak erdi-ireki erdi-itxi zituen, eta bere aho handi-handia zabaldu zuen, gosetuta, zer jango.

Krokodilo aho-handiak txita guztiak jango zituela ematen zuenean, baina, oilo gosetuak burua luzatu eta grausk! irentsi zuen krokodilo berdea.
 –Txitxare lodi bat, nire txita txuriarentzat, txingurri guri bat, nire txita lasto-kolorearentzat, kilker potolo bat, nire txita horiarentzat, txitxar mardul bat, nire txita arrosarentzat, matxinsalto luze bat, nire txita laranjaarentzat, labexomorro goxo bat, nire txita gorriarentzat, eta krokodilo zatar bat, oilo gosetuarentzat –esan zuen.
 Eta poz-pozik joan ziren paseatzera oilo potoloa eta bere sei txitak: txuria, lasto-kolorea, horia, arrosa, laranja eta gorria.

ESKOLARTEKO BERTSO TXAPELKETAKO ESKUALDEKO SAIOA





Martxoaren 21en ospatu zen Eskolarteko bertso txapelketako eskualdeko saioa, eta Haurtzaroko 52 ikaslek parte hartu genuen bertan. Primeran pasa genuen bertsoak idatzi eta bertsolariak entzuten, eta sari batzuk ere ekarri genituen herrira:

LH3-4ko kategorian Aiora Salaberria Garciak lortu zuen lehenengo saria.

LH5-6ko kategorian Elaia Lasa Gelbentzuk lortu zuen bigarren saria eta Ekai Irazusta Ostolazak lehenengoa.

DBH1-2ko kategorian Sara Ayllón Gaztelumendik lortu zuen bigarren saria eta Usoa Arruabarrena Destribatsek lehenengoa.

Sari nagusia, zalantzarik gabe, sortutako giroa eta gaztetxoak bertsoekin gozatzen ikustea!

08. LABURRAK





MATEMATIKA TAILERRA

Udaberriko Matematika Lehiaketa **apirilaren 26an** ospatu zen Leioako unibertsitatean (Bilbon). Badira urte batzuk Haurtzaro Ikastolako ikasleek ekintza honetan parte hartzen dutela, eta asteburuan DBHko 7 ikaslek izan zuten lehiaketa honen bigarren fasean parte hartzeko aukera.

DBH 1.mailako Iñaki Lasa, Jare Ziaurritz, DBH 2ko Alain Uranga eta Nora Imaz, DBH 3ko Aitana Rincón eta Amaiur Ostolaza, eta DBH 4ko Unai Gil.

Eguraldi makurra izan arren, diploma bana jasota, pozik itzuli ginen etxera.



Lexoti jaialdiaren 41. edizioa ospatu genuen maiatzaren 30ean. Landetxeko aretoa LH 6 eta DBH 1 eko ikasleek bete zuten.

Lehenik idatzizko zatian izandako sarituek beren sortak abestu zituzten, ondoren eskualdeko bertso paperetan sarituak aipatu ziren eta bapateko saioari eman zitzaion pausua.

Bertan bertso eskolako ikasleek ariketa ezberdinak osatu zituzten lau oinak emanda, puntua jarrita... eta bukaera aldean Kattalin Arabolaza eta Joanes Illaregi bertsolariek jolas antzeko bi saiotxo eginez bukatu zen emanaldia.

Giro onean eta maila txukunean igaro zen jaialdiak zain du 42. a.

• LH6

(oholtzara + bertsoak kantatu)

. Txapeldunordea: Elaia Lasa

. Txapelduna: Martxel Aduriz

• DBH1

(oholtzara + bertsoak kantatu)

. Txapeldunordea: Usoa Arruabarrena

. Txapelduna: Kattin Gara



KATTALIN eta EGIAR BERTSOLARIAK

Bertsolaritza munduan noiz, nola eta zergatik hasi zineten?

Kattalin:

Oso ttikitatik etxetik jasotako zerbait da. Gurasoak bertsozaleak dira, eta beti izaten genuen saioetara joateko ohitura, baita etxean hitzetik hortzera programa ikustekoa ere. Hasieratik piztu zitzaidan bertsolaritzarekiko grina, eta gogoan dut adina izan aurretik ikastolako bertso eskolan sartu nintzela. Xabi Salaberria irakasleak galdetu zidan ea gogorik banuen, eta 9-10 urterekin sartu nintzen lehenengoz bertso eskolara.

Egiar:

Bertsolaritza munduan haurtzaro ikastolako bertso eskolan hasi nintzela esango nuke. Bertsolaritza munduan orduan sartu banintzen ere, bertsoa lehenagotik nuen gertuko, izan ere etxean apur bat probatua nuen zer zen bertsoa. Hortaz, ez dakit noiz hasi nintzen bertsoan, pixkanakako murgiltze modura bizi izan dut, ikastolan hasitakoan ere mundu horretan gero eta gehiago murgilduz joan nintzen.

Erreferenterik baduzue? Hala bada nor eta zergatik?

Kattalin:

Oso zaila egiten zait bertsolari bakar bat aukeratzea. Boladak izaten ditut, eta batzuetan bertsolari bat gehiago entzuteko joera izaten dut. Esango nuke bakoitzak dituela bere bertsokera eta bere dohainak, eta bat baino gehiago gustatzen zaizkit. Egia da azkenaldian bertsolari gazteen bertsoaldiak entzuten ari naizela gehienbat, edo gaur egun hain gazteak ez direnen gaztetako bertsoaldiak. Uste dut identifikatuago sentitzen naizela, eta gusturago entzuten ditut.

Egiar:

Erreferenteei dagokienez, ezin dut ezer berririk esan, beste askok bezala, nik ere eliteko bertsolariak miresten ditut. Bertsolari bakoitzak bere estiloa du eta bakoitzetik norberarentzat baliagarria dena atera daiteke, horregatik gustatzen zait bertsoak entzutea, besteek nola egiten duten jakiteak nire egiteko moduan eragin dezakeelako.

Ikastolan bertso eskolan arituak zarete, nolako izan da esperientzia?

Kattalin:

Oso gustura aritu izan naiz ikastolako bertso eskolan urtez urte. Azkenean, ezagunak ginen denak, baina



normalean elkartzen ez zinen jendearekin ordubate partekatzeke balio zuen, eta ez klase formatuan, baizik eta jolastuz eta derrigorpenik gabe, nahi gnuelako joaten baikin bertara. Beraz, oso gustura joaten nintzen ikastolako bertso eskolara. DBH 2. mailara arte edo idatzizko bertsoak egiten genituen, eta ondoren kantatu. DBH2an Emaitzekin bat-batean lehen pausuak eman genituen eta oso oroitzapen polita dut urte horretakoa.

Egiar:

Ikastolan bertso eskolan hasi nintzenean aisialdia besterik ez zen, astean ordu bat hartzen zuen zerbait. Lehen galderan aipatu bezala, pixkanaka murgiltzen joan nintzen eta ikastolako azken urtean, eskolartekoan lehen aldiz parte hartu genuenean, garrantzi handiagoko bilakatu zen. Esperientzia polita izan zen, nire antzeko gustuak zituztenekin harremanak sendotu eta giro ederrean ongi pasatzeko gunea, bertsoa ardatz hartuta.

Bat-batean aritzen zaretela ikusi eta entzun dugu, idatzizkoan ere bai? Hala bada, zertan erosoago?

Kattalin:

Gaur egun idatzizkoan oso gutxi. Egia da idatzizko sariketaren baterako, edo ekitaldi garrantzitsu baterako paperean egiten ditudala bertsoak, garrantzitsuak direnean buelta bat baino gehiago eman behar baitzaie eta erosoagoa da paperean zirriborratzea. Halere, bertso eskolan dena bat-batean egiten dugu, eskolartekorako eta plazarako prestatzen gara eta.

Gaur egun bat-batean erosoago moldatzen naiz, inprobisazioaren urduritasun puntu hori gustatzen zaidalako. Nahiz eta normalean bukaera egituratuta dugula

kantatzen hasi, abesten zoazen neurrian jakiten duzu zer ari zaren esaten, eta horrek badu bere xarma. Gainera gaur egun bat-batean aritzen gara eta gustua hartu diot.

Egiar:

Idatzizko bertsoak egin izan ditut, batez ere txapelketetarako. Halere, ez dut oso gogoko idatzizko formatua, nahiago dut bat-batekoa, inguru eta momentu bati lotua, hori kontuan hartuz indar handiagoa hartzen baitu bertsoak. Idatzizkoek ere izan dezakete beren xarma, baina bat-batekoak jendea biltzen du, idatzizkoak ez duen ahalmena du.

Eskolarteko txapelketan punta puntan ibili zarete biak eta txapela ere ekarri duzue OIartzuna. Nolako esperientzia izan da?

Kattalin:

laz ere aritu ginen, eta esango nuke aurten gehiago disfrutatu dudala. Ezagutzen nuen txapelketaren egitura, eta bertsokideekin ere lehenengo urtean baino harreman handiagoa nuen aurten, beraz, erosoago aritu naiz. Gainera, Egiarrekin finalean kantatzean ere babestuago sentitu nintzen, elkar ezagutzen genuelako eta lasaitasun puntu bat zelako niretzat. Askok poztu nintzen txapeldun izendatu zutenean.

Egiar:

Eskolartekoan lehen aldiz apuntatu nintzenetik bi urte igaro dira, eta lehen aldi hartan miresgarri zitzaidan finalean sartzea bera. Bigarren urtean, berriz, finalera sartzeko aukera izan nuen egindako saioekin gustura geratu ez arren. Azken aldi honetan ordea, kanporaketan ongi kantatzea nuen helburu, gustura aritzea, eta elkarte txiki hartan giro ederra sortu zen. Kanporaketa hura irabazita, finalari begira jarri nintzen, eta txapelarekin amestu arren ez nuen irudikatzen. Finalean ere gustura kantatu nuen eta gustura igaro genuen afaria eta afalostea zortzi bertsolariek. Eskolartekoak horretarako aukera ematen baitu, eta ziurrenik hori da garrantzitsuen, gure adineko bertsolari gazteak ezagutu eta harremanak sortzen baitira, mundu txikia izaki bertsolaritza.

Gustoko doinuren bat esateko eskatuko bagenizue, zein?

Kattalin:

Askatasunaz izena duen doinua asko gustatzen zait. Hamarreko handia da, baina oso alaia eta jostaria iruditzen zait. Gainera, gure bertso eskolako irakaslea den Emaitz Muruak musikari proiektu bat du, Liki Likatsu izenekoa. Berak sortutako bertsoei autotunea jartzen die eta horietako abesti batean doinu hau erabiltzen du. Berak erakutsi zidan doinua, eta hori gutxi balitz, eskolarteko finaleko hasierako agurra doinu horretan egin nuen.

Egiar:

Gustuko doinu bakarra esatea zaila iruditzen zait. Baina orokorrean doinu alai eta azkarrak ditut gustuko, zortziko handian "Txirrita hil dela" esaterako. Hamarreko handirako "Hil da Canovas fuera Canovas" dut gustuko. Horiez gain, metrika berezikoak ere gustuko ditut "Itsaso hori dago zatarra" esaterako. Une bakoitzak bere doinua du, baina nik alaietara jotzeko ohitura dut.

Baduzue plaza gustukorik noizbait bertsotan aritzea gustatuko litzaizuekeenik?

Kattalin:

Oreretako Arkaitza tabernan oso gustura kantatzen dut beti. Hilabeteen ostiral batez saio bat antolatzen du



Xenpelar bertso eskolak eta oso giro polita egoten da beti. Gainera bertso eskolako irakasle eta kideak hor egoteak motibatu egiten nau eta oso gustura egoten naiz. Eta, bestela, aurrera begira, festetako bertso afairen batean gustura kantatuko nuke.

Egiar:

Orain artean ez dut plazetan kantatzeko aukera handirik izan, eta horregatik ez dut orain artean plaza gustukorik. Halere, txapelketaren hariari jarraiki, azken urteetan Euskal Herriko eskolarteko finalean abestea izan dut helburu, beti iruditu izan zait plaza ederra izango zela. Orain bertan abesteko aukera izanda, ongi pasatzeko plaza ederra izan daitekeela iruditzen zait.

Zer esango zenioke dagoeneko gustura ikastolako bertso eskolan dabilen ikasleari?

Kattalin:

Errimetatik harago doa
dena ezta ariketa:
harremantzea, irribarreak,
jolasa, elkarriketa
zu hain gustora bazaude ni re
naukazu pozez beteta
gogoa eta ilusioa
dira honen errezeta
horrela zuk nahi duzun tokira
iritsiko zara eta.

Eta zer esango zenioke ikastolako bertso eskolara izena emateko zalantzan dagoen ikasleari?

Egiar:

Blitzta beti osatzen dugu norberak
bere neurria
Bertsoak hori isla dezake
Norberaren perspektiba
aisialdia eta jolasa
Bertsoeskolara pertiga
Gure jostailu gure lan tresna
Hitza ta erroma dira
Ta nahi baduzu etor zintezke
Hitzaren jolastokira



10. OIARTZO



BAZIREN BEHIN, IPUINEI AHOTSA JARTZEN ZIETEN GAZTE JATOR BATZUK...

Ipuinak ez dira beste edozein liburu bezalakoak: ipuinak liburuak dira, baina liburu guztiak ez dira ipuinak. Ipuinek xarma berezia dute. Eta xarma berezia dute, besteak beste, ipuinak norberak irakur ditzakeelako, baina norbaitek irakurriz, edo hobeto esanda, kontatuz gero, magia sortzen dutelako. Nori ez zaio gustatzen ipuinak entzutea!

Ikastolako batxilergoko (Oiartzo) Ahozko Komunikazioa hautazko irakasgaiaren helburu nagusia egoera anitzetan ahozkotasuna praktikan jartzea da. Horretarako, ikasturtean zehar egoera formal eta informalagoak baliatzen dituzte ikasleek mingainari eragiteko, ingelesez, frantsesez zein euskaraz. Gure ikasleak eleanitzak dira eta hizkuntza bateko gaitasunak besteetara transferitzeko irakasgai egokia da Ahozko Komunikazioa.

Horrexegatik, [Ereiten Kultur Zerbitzuetako](#) kideek ikasturte honetarako prestatutako proiektua plaza bikaina izan da ahozkotasuna lantzeko, euskarazko haur literatura aitzakia eta bide hartuta.

Eta zein izan da ba Ereiteneko lagunen proposamena? Lekuona Fabrikako haur literaturako liburu batzuk aukeratu, irakurketa dramatizatua landu, ikasleen ahotsak eta hotsak grabatu eta grabaketa horiek liburu horietan txertatzea QR bidez. Hartara, liburutegira joaten diren haurrek landutako liburuetako bat aukeratzen badute, ipuina kontatutako dien norbait izango dute klik batera.

Bidean Intza Alkain aktorea eta haur literaturan aditua izan dute bidelagun batxilergoko ikasleek. Intzarekin ikasi dute nola sailkatzen diren liburuak eta zein irizpideren baitan aukeratu daitezkeen, nola landu ahotsa eta gorputza irakurketak dramatizatzeke, eta mikrofono aurrean nola aritu. Intzarekin aritu ostean, Ereiteneko Urtzi eta Jonekin egin dute grabaketaren parte teknikoa. Eta guztiari ginga jarri eta amaiera bikaina emateko, batxilergoko Ahozko Komunikazioko ikasleek opari polita jaso dute: egindako grabaketen bertsio editatuak.

Bejondeizuela, gazteak! Ederki gozatuko dute zuen lanaz liburutegira joaten diren haurrek, eta zuek ere bidaia ezazue ipuinetan barrena zuen ahotsez disfrutatuz!

DBH 4koen agurra



Egun batez sartu ginen
gure bigarren etxera
babesleku bilakatu
baita ikastola bera
argitxo ezagutzeko
izan genuen aukera
LHn zenbat une
eta zenbat gorabehera
handiak ginela ustez
joan ginen DBHra
orain behar dugu sartu
ginen atletik atera
guretzat ikastola hau
gure bizitzan parte da
bide hau ahaztu gabe
egingo dugu aurrera



Haurtzaro Ikastola
bizitzarako hezkuntza

DBH4 - 27. promozioa
2025